ZERBITZUAK
/
SERVICIOS

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA
/
PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

GUFEn 2026 eta 2027ko ekitaldietan euskararen erabilera sustatzeko programa garatzeko zerbitzua
/
Servicio para el Desarrollo del Programa de Fomento del Uso del Euskera en el IFAS para los ejercicios 2026-2027

PROZEDURA IREKIA ZENBAIT ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEREKIN
/
PROCEDIMIENTO ABIERTO CON VARIOS CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1.- Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da honako zerbitzu hau: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean euskararen erabilera sustatzeko programa garatzea hizkuntza-trebakuntzako teknikari batekin, 2026ko eta 2027ko urtarrilaren eta ekainaren artean eta urriaren eta abenduaren artean, bi epe horietan.

GUFEn euskararen ezagutza mailan lan handia egin da eta orain, gure egiteko nagusia eguneroko lanean euskararen erabilera normalizatzea da. Erabilera baita, azken batean, edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria. Horretarako zerbitzu hau kontratatzen da; aldi berean, langileen, erabiltzaileen eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzen laguntzen du, zerbitzuaren kalitatea hobetuz.

2.- Zerbitzuaren helburuak.

- GUFEko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean agertzen diren jarduerak egitea.
- GUFEren Jarduera Esparruan Hizkuntza Ofizialen Erabilerari Buruzko Araudia betearazten laguntzea.

3.-Hizkuntza-trebakuntzako teknikariaren eginkizunak honako hauek izango dira.

- Lanean euskararen erabilera (ahozkoa zein idatzizkoa) areagotzeko urteko programazioa ezartzea eta garatzea.
- Urtero jarraipena eta azken ebaluazioa egitea programatutakoa noraino bete den jakiteko.
- Langileei euskarazko prestakuntza ematea.
- Euskaraz lan egiteko gai diren langileen hizkuntza-erabilerak lehenestea eta "erabilera helburu" zehatzak ezartzea.
- Langileek euskararen aldeko jokabidea eta motibazioa izan dezaten sustatzea, aintzat hartzea, eta horretarako behar duten laguntza ematea.
- Euskararen ezagutzari eta erabilerari lotutako balio erantsiak bultzatzea.
- Lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileen hizkuntza-gaitasuna finkatzea.

1.- Objeto del contrato.

Constituye el objeto de este contrato el servicio consistente en el desarrollo del programa de fomento del uso del euskera en el Instituto Foral de Asistencia Social con un técnico o técnica de capacitación lingüística, para el periodo de enero a junio y de octubre a diciembre de 2026 y 2027.

En el IFAS se ha trabajado mucho, y se han dado importantes avances en el nivel del conocimiento del euskera, siendo ahora nuestro principal objetivo la normalización de su uso en el trabajo, ya que en definitiva la llave del futuro de cualquier lengua es su uso. Para ello se contrata este servicio, al tiempo que ayuda a garantizar los derechos lingüísticos del personal, de las personas usuarias y sus familias mejorando la calidad del servicio.

2.- Objetivos del servicio.

- Realizar las actividades recogidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskera del IFAS.
- Colaborar en el cumplimiento del Reglamento de Regulación del Uso de las Lenguas Oficiales en el ámbito de Actuación del IFAS.

3.-Funciones del/la Técnico/a de capacitación lingüística.

- Diseñar y ejecutar la programación anual para el aumento del uso del euskera tanto hablado como escrito en el trabajo.
- Realizar anualmente el seguimiento y la evaluación final del cumplimiento de lo programado.
- Impartir formación al personal.
- Otorgar una atención prioritaria a los usos lingüísticos del personal capacitado para trabajar en euskera y establecer "objetivos de uso" concretos.
- Fomentar una actitud favorable, motivación y reconocimiento hacia el euskera del personal, ofreciendo la ayuda necesaria.
- Impulsar los valores añadidos ligados al conocimiento y uso del euskera.
- Afianzar la capacitación lingüística del personal que ha acreditado el perfil lingüístico del puesto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Euskararen erabilera motibagarria izateko jarduerak egitea.
- GUFEko hizkuntza-egoeraren diagnostikoan parte hartzea.
- Zentro, etxebizitza edo zerbitzuetako euskara maila (ahozkoa zein idatzizkoa) aztertu eta analizatzea.
- Planean parte hartzen duten langileen euskara maila (ahozkoa zein idatzizkoa) aztertu eta analizatzea.
- Itzulpenari barik testu elebidunen sorrerari ematea lehentasuna.
- Euskararen Erabilera Planean erabiliko diren testuak itzultzea, gaztelaniaz egongo balira.
- Zentro, etxebizitza edo zerbitzuen barruko testuak itzultzea.
- Langileek idatzitako testuak zuzentzea, edota zuzentzeko irizpideak ematea.
- Zentro, etxebizitza eta zerbitzuetan hirugarren batekin erabiltzen diren dokumentu guztiak ele bietara daudela egiaztatzea, baita web orrian eta intraneten daudenak ere. Hala ez balitz itzuli Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiaren Atalaren laguntzaz.
- Zentro eta zerbitzu guztietako errotulu guztiak eta hizkuntza paisaia euskaraz eta gaztelaniaz daudela egiaztatzea.
- Beharrezkoa den laguntza guztia ematea zentro, etxebizitza eta zerbitzu guztietan erantzungailu automatikoz edo megafoniaz ematen diren mezu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emateko.
- Gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

- Realizar actividades de motivación del uso del euskera.
- Participar en el diagnóstico de la situación lingüística del IFAS.
- Estudiar y analizar el nivel de euskera hablado y escrito de los centros, hogares o servicios.
- Estudiar y analizar el nivel de euskera hablado y escrito del personal que participe en las actividades recogidas en el Plan.
- Fomentar la creación de textos bilingües ante la traducción.
- Traducir los textos que se utilizarán dentro del Plan de Fomento del Uso del Euskera, si fuera necesario.
- Traducir textos internos de los centros, hogares o servicios.
- Corregir textos escritos por el personal o facilitarles criterios de corrección.
- Comprobar que todos los documentos de los centros, hogares y servicios que se utilizan con terceros, así como los de la página web y la intranet están en bilingüe. Si no fuese así traducirlos en colaboración con la Sección de Traducción, Terminología y Tecnología Lingüística del Departamento de Euskera y Cultura la Diputación Foral de Bizkaia.
- Comprobar que la rotulación y el paisaje lingüístico de todos los centros y servicios está en euskera y castellano.
- Dar la ayuda necesaria para que todos los mensajes emitidos a través de contestador automático y megafonía en los centros, servicios y hogares se den en euskera y castellano.
- Realizar asimismo aquellas tareas encomendadas, acordes con la categoría y cualificación del puesto y sin menoscabo de las anteriores.

4.- Jarduera esparrua.

GUFEko zentro, etxebizitza eta zerbitzu guztiak, bakoitzean egiten diren jardueren arabera, I. eranskinean adierazitakoarekin bat.

4.- Ámbito de actuación.

Todos los centros, hogares y servicios del IFAS en función de las actividades que se realicen en cada uno de ellos, y de acuerdo con lo relacionado en el Anexo I.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5.- Hizkuntza-trebakuntzako teknikariaren lan egutegia eta ordutegia.

Irakastegunak astelehenetik ostiralera izango dira, uda garaia, jaiegunak eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandei dagozkien egunak izan ezik, honako ordutegi honekin:

Astelehenetik ostegunera	08:00 – 14:30
Ostiraletan	08:00 – 14:00

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren arabera, 32 ordu astero fakturatuko dira; guztira, urtean 1.069 gutxi gorabeherako orduak dira, urtarriletik ekainera eta urritik abendura banatuta.

6.- Erabilitako materialak.

Faktura bakoitzarekin batera, eskolarako prestatu eta sortutako materiala inprimaturik eta euskarri informatikoan aurkeztu beharko da, material horren gaineko autoretza nahiz autoretza horri loturiko gainerako ustiapen-eskubide guztiak, bere ohiko jarduerarako behar duen irismenarekin batera, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari dagozkiola, inolako denbora- edo lurralde-mugarik gabe, eta lanak edo zerbitzuak ezartzen dutenaz bestelako konpentsaziorik gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

7.- Pertsonala.

Kontratu hau egiteko erabiliko diren langileei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartzen du enpresaburu guztiek enpresa zuzentzeko berez duten boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzeko betebeharra. Zehazki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebehar legalak betetzea; diziplina-zehapenak jartzea —hala badagokio—; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; eta enplegatuaren eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

Enpresa kontratista-adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez ere; pertsona horrek enpresako plantillakoa izan behar du, eta betebehar hauen izango ditu, besteak beste:

5.- Calendario y horario del/la técnica de capacitación lingüística.

Las jornadas lectivas serán de lunes a viernes, exceptuando el periodo de verano, los días festivos y los días correspondientes a los turnos de Semana Santa y Navidad, y el horario será el siguiente:

Lunes a jueves	08:00 – 14:30
Viernes	08:00 – 14:00

Según lo dispuesto en el párrafo anterior, se facturarán 32 horas/semana, constituyendo un total de 1.069 horas anuales estimadas distribuidas en los meses de enero a junio y de octubre a diciembre.

6.- Materiales empleados.

Junto con cada factura se deberá presentar, también, el material creado y preparado para impartir las clases, impreso en papel y en soporte informático, correspondiendo la autoría sobre dicho material, así como todos los derechos de explotación del mismo, con el alcance necesario para su actividad habitual, al Instituto Foral de Asistencia Social, sin limitación temporal ni territorial alguna, y sin compensación diferente a la establecida por el trabajo o servicio, según lo dispuesto en el artículo 8 del Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de la Propiedad Intelectual.

7.- Personal.

En relación con el personal trabajador destinado a la ejecución de este contrato, la empresa adjudicataria asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a todo/a empresario/a. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición, cuando proceda, de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado/a y empleador/a.

La empresa contratista-adjudicataria deberá designar al menos una persona coordinadora técnica o responsable, integrada en su propia plantilla, que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileek enpresa kontratatzaileari kontratuaren gauzatzea dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jaso eta transmititzea.

b) Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, bereziki langileak lanera joaten diren eta nola hartzen dituzten oporrak. Izan ere, kontratatutako zerbitzua ez eragoztea da helburua.

1. Lizitatzaileek aurkeztutako hizkuntza-trebakuntzako teknikariak baldintza hauek bete behar ditu:

   - Magisteritza, graduko unibertsitate-titulua edo lizentziatura-agiria aurkeztea.

   - Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko euskarazko C-2 maila egiaztatzen duen edozein agiri aurkeztea.

2. Aurreko puntuko baldintzak betetzeaz gain, honako hauek egiaztatu behar ditu:

   - Euskararen erabilera sustatzeko egitarauetan 1.000 ordutik gora aritu dela hizkuntza trebakuntzako teknikari gisa.

   - Euskarako komunikazio-gaitasunaren mailak egiaztatzeko azterketetan aztertzaile edo laguntzaile gisa parte hartu duela (gutxienez bost deialditan).

3. Enpresek aurkeztu behar dute, gutxienez, 1. eta 2. puntuetan eskatzen diren titulu eta agirien kopiak. Bestalde, hizkuntza-trebakuntzako teknikariaren curriculum vitaea ere aurkeztu behar dute, lan eskarmentua barne, ere aurkeztu behar da, betiere HABEren Ikuskatzailetzaren edo euskararen erabilera suspertzeko egitarauak burutu diren erakunde eskudunaren ziurtagiriekin.

8.- Kontratatzailearen betebeharrak.

Dena delako arrazoiarengatik ordezkorik edo teknikari gehiago behar izanez gero , enpresek egiaztatu behar dute hizkuntza-trebakuntzako teknikari berriek ere aurreko atalean eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak lizitatzaileek aurkeztutako hizkuntza-trebakuntzako teknikariaren

a) Recibir y transmitir cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista-adjudicataria deba realizar a la empresa contratante en relación con la ejecución del contrato.

b) Controlar el cumplimiento de las normas laborales de la empresa contratista-adjudicataria, en particular en materia de asistencia del personal al lugar de trabajo y disfrute de vacaciones, de manera que no se perturbe la prestación del servicio contratado.

1. La técnica o el técnico de capacitación lingüística que designen las empresas licitadoras deberá:

   - Presentar el título de Magisterio, de grado o licenciatura universitaria.

   - Presentar cualquier título acreditativo del nivel C-2 de euskera del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

2. Además de las condiciones determinadas en el punto anterior, deberá acreditar lo siguiente:

   - Haber desarrollado trabajos de técnico/a de capacitación lingüística en planes y programas de fomento del uso del euskera durante un período mínimo de 1.000 horas.

   - Haber participado en exámenes de acreditación del nivel de euskera como examinador/a o colaborador/a (al menos en cinco convocatorias).

3. Las empresas deberán aportar copias de los títulos y documentos exigidos en los puntos 1 y 2, así como el curriculum vitae del/la técnico/a de capacitación lingüística, incluida la experiencia profesional acreditada mediante certificación de la Inspección de HABE o de la entidad en la que se hayan desarrollado los programas de fomento del uso del Euskara.

8.- Obligaciones de la entidad contratista.

Si por cualquier circunstancia se necesitara realizar alguna sustitución o aumento de técnicas y/o técnicos, las empresas acreditarán el cumplimiento de las condiciones establecidas en el apartado anterior por parte de las personas que se incorporen.

El Instituto Foral de Asistencia Social se reserva la facultad de solicitar el cambio del técnico o técnica de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aldaketa eskatzeko eskubidea du, baldin eta ez baditu gauzatzen kontratuan jasotako betebeharrak.

9.- Proposamen-aurkezpenak.

Enpresa lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzek Bizkaiko Lurralde Historikoko hizkuntza ofizial bietan egon behar dute idatzita (euskaraz eta gaztelaniaz). Baldintza berezi hori ez betetzeak lizitazio-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

Lizitatzaileek C gutun-azalean aurkeztuko dute eskaintza teknikoa; hizkuntza-gaikuntzarako teknikaria identifikatuko dute, eta PTA honen 7. apartatuan adierazitako dokumentazioa erantsiko dute.

capacitación lingüística presentado por las empresas licitadoras, para el supuesto de que no cumpla con las obligaciones del contrato.

9.- Presentación de las proposiciones.

Las ofertas a presentar por las empresas licitadoras deberán venir redactadas en las dos lenguas oficiales del Territorio Histórico de Bizkaia (euskera y castellano). El incumplimiento de esta condición especial supondrá la exclusión del proceso de licitación.

Las licitadoras presentarán en el Sobre C su oferta técnica, identificando al Técnico/a de capacitación lingüística y adjuntando la documentación señalada en el apartado 7 del presente PPT, correspondiente al mismo/a.

Sin./Fdo.: MARIA JOSE LARRINAGA ARTECHE - 2025-05-26
TREBAKUNTZAKO ARDURADUNA
RESPONSABLE DE FORMACION

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

I. ERANSKINA

ANEXO I

ZERBITZU ZENTRALAK
Ugasko bidea, 5 Bis, 1. solairua
48014.-BILBO

EGOITZA HARRERAKO UNITATEA
Ugasko, 3.
48014.-BILBO

ETXEBIZITZA SAREA:
Ugasko, 3.
48014.-BILBO

BASAURI ETXEBIZITZA
Severo Ochoa, 7 – 1. A-B
48970.-BASAURI

ETXEBIZITZA HOGAR
Foruak kalea, 3 – 5.
48901.-BARAKALDO

MUNGIA ETXEBIZITZA
Zubiaga, 2 – 1. A-B
48100.-MUNGIA

PORTUGALETE ETXEBIZITZA
Grumete Diego, 38 - 2 A
48920.-PORTUGALETE

SAN ADRIAN ETXEBIZITZA
San Adrián, 22 - 1 .A-B
48003.-BILBAO

SANTURTZI ETXEBIZITZA
Regales, 7 – 3. C
48980.-SANTURTZI

TXURDINAGA ETXEBIZITZA
Jesús Galindez, 14 – 1. C-D
48004.-BILBO

ZABALBURU ETXEBIZITZA
Zabalburu plaza, 2 Bis – 1. esk.
48003.-BILBO

MINA DEL MORRO ETXEBIZITZA
Indalecio Prieto etorb., 11 – 3. D-E
48004.-BILBO

SERVICIOS CENTRALES
Camino Ugasko, 5 Bis – 1ª planta.
48014.-BILBAO

UNIDAD DE ACOGIMIENTO RESIDENCIAL
Camino Ugasko, 3.
48014.-BILBAO

RED DE HOGARES:
Camino Ugasko, 3
48014.-BILBAO

HOGAR BASAURI
Severo Ochoa, 7 - 1º A-B
48970.-BASAURI

HOGAR FUEROS
Fueros, 3 - 5º
48901.-BARAKALDO

HOGAR MUNGIA
Zubiaga, 2 - 1º A-B
48100.-MUNGIA

HOGAR PORTUGALETE
Grumete Diego, 38 - 2 A
48920.-PORTUGALETE

HOGAR SAN ADRIAN
San Adrián, 22 - 1º A-B
48003.-BILBAO

HOGAR SANTURTZI
Regales, 7 - 3º C
48980.-SANTURTZI

HOGAR TXURDINAGA
Jesús Galindez, 14 - 1º C-D
48004.-BILBAO

HOGAR ZABALBURU
Plza. Zabalburu, 2 Bis – 1º Dcha.
48003.-BILBAO

HOGAR MINA DEL MORRO
Avda. Indalecio Prieto, 11 – 3º D-E
48004.-BILBAO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

DOLARETXE ETXEBIZITZA Dolaretxe, 12 48006.-BILBO	HOGAR DOLARETXE Dolaretxe, 12 48006.-BILBAO
LEIOA LAGUNTZA ZENTROA Santimami auzoa, 20 48940.-LEIOA	CENTRO ASISTENCIAL LEIOA Bº Santimami, 20 48940.-LEIOA
GALLARTA LAGUNTZA ZENTROA Etorbide berria, 3 48500.-ABANTO	CENTRO ASISTENCIAL GALLARTA Nueva Avenida, 3 48500.-ABANTO
ELORRIO LAGUNTZA ZENTROA Ospitalkantoia kalea, 4 48230.-ELORRIO	CENTRO ASISTENCIAL ELORRIO Ospitalkantoia kalea, 4 48230.-ELORRIO
BIRJINETXE LAGUNTZA ZENTROA Doctor Ornilla, 1 B 48004.-BILBO	CENTRO ASISTENCIAL BIRJINETXE Doctor Ornilla, 1 B 48004.-BILBAO
SANTURTZI ITSASTARREN ETXEA Cristobal Murrieta, 17 48980.-SANTURTZI	CASA DEL MAR DE SANTURTZI Cristobal Murrieta, 17 48980.-SANTURTZI
ONDARROA ITSASTARREN ETXEA Ibaiondo, 15 48700.-ONDARROA	CASA DEL MAR DE ONDARROA Ibaiondo, 15 48700.-ONDARROA
GIZATEK LAGUNTZEKO PRODUKTUEN ZENTROA Lersundi,14 – beheko solairua 48009.-BILBO	GIZATEK CENTRO DE PRODUCTOS DE APOYO Lersundi,14 – bajo 48009.-BILBAO
ZUMELEGI LAGUNTZA ZENTROA Berriotxoa, 26 48230.-ELORRIO	CENTRO ASISTENCIAL ZUMELEGI Berriotxoa, 26 48230.-ELORRIO
ERREKALDE LAGUNTZA ZENTROA Arteaga auzoa, 54 48160.-DERIO	CENTRO ASISTENCIAL ERREKALDE Bº Arteaga, 54 48160.-DERIO
LOIU-UDALOSTE LAGUNTZA ZENTROA Txomin Garat, 40 48004.-BILBO	CENTRO ASISTENCIAL LOIU-UDALOSTE C/ Txomin Garat, 40 48004.-BILBAO
LUSA LAGUNTZA ZENTROA Lusa auzoa, 4 48860.-ZALLA	CENTRO ASISTENCIAL LUSA Barrio Lusa, 4 48860.-ZALLA
OLABE LAGUNTZA ZENTROA Astelarre auzoa, 15 48392.-MUXIKA	CENTRO ASISTENCIAL OLABE Bº Astelarre, 15 48392.-MUXIKA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

URDUÑA LAGUNTZA ZENTROA
Prado pasealekua, 12
48460.-ORDUÑA

MUNDAKA LANGUNTZA ZENTROA
Sarrua, 5
48360.-MUNDAKA

BEKOETXE EGUNEKO ZENTROA
Doctor Ornilla, 1 B
48004.-BILBAO

CENTRO ASISTENCIAL URDUÑA
Paseo del Prado, 12
48460.-ORDUÑA

CENTRO ASISTENCIAL MUNDAKA
Sarrua, 5
48360.-MUNDAKA

CENTRO DE DÍA BEKOETXE
Doctor Ornilla, 1 B
48004.-BILBAO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: TCTA-IFG2-XUOE-MS64
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus